Mikel Begoña • Kike Infame • Daniel Gojénola

# ERMUA binetetan

## • NEPTUNOREN 24 KORAPILOAK •



Neptuno planeta denbora luzez gure begiradatik kanpo gordeta egon zen bezala, emakumeen historiaren hainbat pasarte ere ezkutuan geratu dira, askotan gertakariak gizonaren ikuspegitik kontatu direlako. Horregatik da hain garrantzitsua emakume erraketisten figura aldarrikatzea. 1917tik 1980ra, Madrilgo pilotalekua itxi zuten arte, Ermua pilota-harrobia izan zen, eta gure herriko pilotariek bere izena harro eraman zuten mundu osoan. Petra Lizaso distira handiz nabarmendu zen jokoaren hastapenetan, eta ahanzturan erori beharko ez luketen izar horien ordezkari bikaina da.



**ERMUA: ISTORIOEN UNIBERTSOA**

Ermua istorioz eta pertsonaiez beteriko unibertsoa da, txikiak zein handiak, guztiak elkarrekin bertako historia osatzen dute. Komikiaren bidez, unibertso horretako une eta pasarte gogoangarriak konta daitezke. Narrazio bakoitza planeta baten eraginpean marrazturik dago, eta planeta guztiak elkarrekin, unibertso bakarra osatzen dute. Planeta horien izenak mitologia klasikoko jainkoetatik datoz, bakoitzak bere ezaugarriekin.

## Argitaratutako aleak:

- **Saturno Eskolanekua.**
- **1794. Marte eroturik.**
- **Merkurioren hego bizkorrak.**
- **Neptunoren 24 korapiloak.**

**Argitalpena:** Ermuko Udala. Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Kirola.
**Gidoia:** Mikel Begoña. **Marrazkiak:** Kike Infame.
**Koloreak:** Daniel Gojénola.
**Inprimaketa:** Héctor Soluciones Gráficas.
**1. edizioa:** 2025ko iraila. **LG:** G 00455-2025


NEPTUNOREN 24 KORAPILOAK
EIBAR, ERMUA ETA **SALLABENTE** BEZALAKO FRONTOIETAN JO ZITUZTEN LEHEN ERRAKETAKADAK GAUR EGUN GURE KIROL HISTORIAREN PARTE DIREN EMAKUME ASKOK.
BAINA HAIEN AZTARNA ASKOZ URRUNAGO HELDU ZEN...
BENETAKO GERTAKARIETAN OINARRITUTAKO KOMIKIA... IRUDIMEN PIXKA BATEKIN.
FRONTOI HORIETAN TREBATUTAKO ERRAKETISTAK EMAKUMEZKOEN KIROL PROFESIONALEAN MUNDU MAILAKO ELITEKO LEHEN KIROLARIAK BIHURTU ZIREN.
EUSKAL KIROLAREN ESENTZIA ERMUTIK MUNDURA ERAMAN ZUTEN ENBAXADOREAK IZAN ZIREN.
KIROL-BALENTRIA BATEN PROTAGONISTAK IZAN ARREN, GURE ERRAKETISTEN IBILBIDEA ORAINDIK ERE EZ DA EZAGUTZEN, BELAUNALDIZ BELAUNALDI ISILDUTA EGON BAITA.
HORIXE DA **ELADIA ZUBIZARRETA** ETA HAREN AHIZPA **ROSARIO**REN KASUA.
PILOTAN JOKATUZ EGUNEROKO OGIA IRABAZ ZITEKEELA IKUSTEAK ETXETIK IRTETEKO ADOREA EMAN ZIDAN.
BAI
EDO **CHARO DE CRUZ**EN KASUA, AZKEN ERRAKETISTA PROFESIONALETAKO BAT, SALLABENTEN BERTAN ESKUZ JOKATZEN HASITAKOA...
ESKUAK PUZTU-PUZTU EGITEN ZITZAIZKIDAN. ESKOLAN ARKATZA EDO JOSTORRATZA ERE EZIN ESKUAN HARTU!
ESKUAK BERE ONERA EKARTZEKO, ZAPALDU EGIN BEHAR IZATEN NITUEN.
CHARO GARAI BATEKO AZKEN TAUPADA IZAN BAZEN, **PETRA LIZASO** IZAN ZEN HAREN LEHEN ARNASA. BI ERMUAR PILOTARIREN ARTEAN TRADIZIO LUZE BAT DAGO, ORAINDIK MEREZI DUEN MODUAN KONTATU EZ DENA.
KONTAKIZUN ZIRRARAGARRI HONEN HASIERARA GOAZ. **PETRA HABANA**RANTZ ITSASORATZEKO ZORIAN DAGO...
TUUUUUUUU!


PETRA! HILABETE OSO BAT ITSASOAN PASATUKO DUGU. ENTRENATU EZEAN, HABANARA ERRATZ-KIRTENAK BAINO ZURRUNAGOAK IRITSIKO GARA!
AI, KARMENTXU... EZ DAKIT BA... ZORABIATU BARIK JOATEAREKIN NAHIKOA DUT!
NEPTUNO BAPOREA. VIGO, 1922KO IRAILA.
ELKARREKIN ONTZIRATU GINEN MADRILGO MODERNO FRONTOIKO ERRAKETISTA TALDEKO FIGURA NAGUSIAK...
HEMENGO LAGUN HONEK KARMENTXU DU IZENA; HARAGOKOAK, BERRIZ, JOSEFINA, ETA BESTE HAREK EIBARTARRA...GUZTIRA, HAMABOST LAGUN GARA, PRENTSAK "ERRAKETAREN ARTISTAK" IZENA JARRI DIGU.
DENOK BATERA KUBARA!
KUBAN, HABANA-MADRID FRONTOI BERRIA INAUGURATZEKO ZAIN DITUGU. GURETZAT, ERRAKETISTONTZAT, PROPIO ERAIKITAKO FRONTOIA DA.
ANDEREÑOAK, KONING KAPITAINA ZAIN DAUKAZUE... "HITZALDI EDERRA" PRESTATU DIZUELA USTE DUT...
ZER IZEN DU TXAKURTXOAK?
MILEIA. BUENOS AIRESKO DARTSENA BATEAN AURKITU NUEN ABANDONATUTA..
PILOTA ANDEREÑOAK, ONGI ITURRIAK NIRE BARKURA! NIRETZAT HORRORE HANDIA DA EMATEA ZUEI ONGI ITURRIA.
ZUEK GARETE EMAKUME MODERNO, ATLETIKOEN EREDU BI KAÑA... KIROLAREN LANGILEAK GARETE.


EMAKUMEAK, BETI HISTORIAN PRESENTE, BETI GOR, BAINA...
NEPTUNO PLANETA BAT BEZALA, BETI GOR IZAN DENA... BAINA IKUSEZINA...
ETA EGUN EPER BATEAN, ASTRONOOM OM BATEK, AZKENEAN, HORTZEAN AURKITU ZUEN!
TXAKURTXUA POLITA ZEN, GERO!
BAI, BAI... TXAKURTXUA EDO MARINELTXUA??
KAR, KAR, KAR...
"GUTUN HAU JASOTZEN DUZUNERAKO, AMA, ESPERO DUT AZKEN BIDALKETA JASO ETA ERRETIRATU IZANA".
"MODERNOKO AZKEN PARTIDAK ONDO JOAN ZITZAIZKIDAN, NAHIKO DIRU ESKURATU NUEN... BADAKIZU KINIELETAN IRABAZTEN DUGULA GEHIEN".
"BERAZ, ESPERO DUT ETXEAN LAGUNGARRIA IZATEA ZOR TXIKI BATZUK KENTZEKO".
..."ZIURRENIK, HEMEN ASTE BATEAN GEHIAGO IRABAZTEN DUT TAILERREAN HILABETE OSOAN BAINO"...
"HABANAN ILDEFONSOK EGINDAKO FRONTOI BERRIAN, 1.800 IKUSLE SARTZEN DIRELA ESAN DIDATE"...
"KONTUAK ATERA, AMA! DIRUTZAK JOKATZEN EI DIRA HAN, ETA DIRUAK MUGITZEN DIRENEAN, BADAKIZU, BETI ZER EDO ZER SARTZEN DA GURE POLTSIKOAN. EA ZORTEA DUGUN!"
"ZUEN FALTA ITZELA DUT, AMA!. GORAINTZIAK DENENTZAT ETA BATEZ ERE IZEKO MIRENI; ESPERO DUT DAGOENEKO SENDATUTA EGOTEA"...


1919AN, ILDEFONSO ANABITARTEK ERRAKETA JOKOAREN LEHEN ARAUAK JARRI ZITUEN.
KAUTXUZKO PILOTAK LARRUZKOENGATIK ALDATU DITUT, FRONTOIAN BIZIAGOAK DIRELAKO. HORREN ONDORIOZ, ERRAKETA BEREZI ETA SENDOAGOAK ERE EKARRI DITUT, KOLPE INDARTSUAGOAK EMATEKO.
ORAIN BAI, PILOTA ASKOZ BIZIAGO DABIL...
GURE PILOTARIEK LAN-ISTRIPUEN ARRISKUA ORAIN SARRIAGO DUTEN ARREN...
...KIROL BERRIAREN IKUSGARRI-TASUNARI ESKER FRONTOIAK LEPOZ BETETZEN ARI DIRA.
HASIERAN LAU ZORO BAINO EZ GINEN, ETA ORAIN ERRAKETISTA FRONTOIAK LEKU GUZTIETAN ZABALTZEN DABILTZA...
...BAINA NIRE FRONTOIRA JOKALARI ONENAK BAINO EZ DITUT EKARTZEN, EUSKAL HERRIKO PILOTARI HARROBI GUZTIETAN DITUT KONTAKTUAK...
...ETA EL MODERNO, MADRILEN DAUKADAN FRONTOIA, DENETAN ONENA DA...BAINA TXIKIEGI GERATU DA... NEGOZIOA HANDITU BEHARRA DAGO...
BAGOAZ HABANARA!
Se inaugura el lindo Frontón HABANA-MADRID
LAS CHICAS SON GENTILES Y JUEGAN A LA ALTA ESCUEL



1922KO URRIAN INAUGURATU ZEN ANABITARTEREN FRONTOI BERRIA.
KUBAKO ERESERKIA ETA GERNIKAKO ARBOLA KANTATU ZITUZTEN.
FRONTÓN HABANA-MADRID
Aunque del cielo caigan rayos, siempre estará lleno y relleno como los pavos, el jacundo Habana-Madrid
AL COMBATE CORRED BAYAMEESEES,
EMAN TA ZABAL ZAZU MUNDUAN FRUTUAAA
1.800 IKUSLE, 39 METRO LUZE, 9 METRO ZABAL, 14,3 METRO ALTUERAKO KANTXA, ETA 4 METRO KONTRAKANTXA... ETA GU ERAIKIN BEREAN BIZI GARA...
...GU ZAINTZEKO ARDURA DUTEN ANDEREEKIN, GUREKIN PASEO EGITERA ATERATZEN DIRENAK, GURE IZEN ONARI ETA ENPRESARI KALTE EGIN DIEZAIOKETEN HARREMANAK SAIHESTEKO...
GUZTIAREN GAINETIK, BERTUTEA ETA MORALA.
FONSECA
TABACOS CIGARROS
FUMEN
TABACOS
VILLANU
CIGARROS



**HABANA-MADRID** FRONTOIARI "ERRAKETAREN JAUREGIA" JARRI ZIOTEN IZENA...
RONTÓN HABANA-MADRID
La función del lunes, por lo animada
oncurrida, nos pareció una noc
de gran tono en el Habana-
do. Pues Petra
metralló implaca-
ble a Aurorita. Las
blancas quedaron
en 25. Tuvo sus
omentos fenome
nales
lena y Antonia ganan un bonito p
Dafne. En el segundo que fue sobr
parejas empataron -ganaron Paquita
relia y Petra dejaron en 25 a Paquita
ÍA DE LUTO NACIONAL. NO SE CELEBRA FUN
NAHIZ ETA NIRETZAT LEHEN PARTIDAK "ERRAKETAREN INFERNUA" IZAN...
ERREMINTARI BEREHALA HARTU NION NEURRIA...
BAITA FRONTOIARI...
ANGELITA Y PETRA GANAN EL FENOMENAL A MARCELINA Y CARMENCITA
NIK USTE GAUR GURE ZAINTZAILEETATIK LIBRATU AHALKO GARELA... **INAUTERIAK** DIRA ETA **HABANAKO KASINOAN** ORKESTRAREN KONTZERTURAKO GONBIDAPENAK LORTU DITUT!



TUUUUU
KARMENTXU, BIHAR PARTIDA GOGORRA DAUKAGU...
TUUUUUUUUUU
KARMEN, KEZKATUTA NAGO... HEMEN HARRAPATZEN BAGAITUZTE, LANIK GABE GELDITUKO GARA...
TXOTXOLA!, INORK EZ GAITU EZAGUTUKO... JANTZI HAU ETA GOAZEN ORKESTRA ENTZUTERA.
SI TE QUIERES POR EL PICO DIVERTIR
CÓMETE UN CUCURUCHITO DE MANIIIIIII
AMATXO MAITIA! ! BANOA HEMENDIK!!
EZTA MUNDUKO URRE GUZTIAGATIK ERE, EZ NAIZ NI HEMEN GERATZEN!
BA ZURETZAT OKERRAGO...
PETRA, BAINA NORA ZOAZ?
TAXI!
ANDEREÑO PILOTARIA!!
MI REINA... ¿SUBE O NO SUBE AL TAXI?


GAUR GURE PETRA APAL IKUSTEN DUT, EZ DAKIT ZER DUEN...
BATZUEK DIRUTZA EGINGO DUTE GAURKO KINIELEKIN...
BAINA 1928KO MARTXOAN JOKOA AMAITU ZITZAIGUN... HURRENGO EGUNEAN EIBARTARRA IZAN NUEN BIKOTEKIDE.
HEMEN UDALAREN ZERGEKIN, ZAILA DA AURRERA JARRAITZEA...
... DATORREN URTEAN FRONTOI BERRI BAT ZABALDUKO DUT MADRILEN...
...JOKALARI BERRIAK FITXATUKO DITUT...
..."CONFORT" GUZTIAK IZANGO DITU.
EL FRONTÓN MADRID,
el mejor acondicionado y el más elegante de España
...ERRAKETAREN KIROLAK ETORKIZUN OPAROA DU.